



**Ekintzak plazara ateratzeko prest.** - Astelehenean jai giroan hasi zen Semblante Andaluz elkartearen Aste Kulturala. Elkarteko bazkide, udal ordezkari eta lagunak bildu ziren bertan asteari ohorezko ardoarekin hasiera emateko. Semblante Rociero koruak eta Gitanillas del Alba dantza taldeak eman zion hasiera ekitaldiari. Osteen, Jose Maria Mellado elkarteko lehendakariak eskerrak eman zien guztiei bertan egoteagatik eta elkarteko kideei eskaintako laguntzagatik. Udal Batzarreko kideek, lehendakariak eta elkarteko kultura arduradunak ohorezko ardoaren topa egin zuten eta mokadu bat jateko aukera izan zuten bertan bildu zirenek. Asteartetik ostegunera karta jokoak izan dira nagusi elkartearen. Gaurtik aurrera, jai kalera aterako da 'Amigos del Sur' taldearen eskutik eta osteen, afari andaluziarra dastatzeko aukera izango da. Musika, dantza eta haur-jolasak izango dira nagusi asteburu eta astelehenean zehar Golf plazan.

### 3 GIZARTEA

#### Nagusien omenaldi asteko ospakizunak amaitu dira

Biyak Bat egoitzako 37. urteurrena eta aurten urrezko ezteiak egiten dituzten bikoteei omenaldia eginez amaitu ziren atzo Nagusien omenaldi asteko ekintzak. Ipuin kontalariak, abesbatzen emanaldia, antzerkia edo dantza eta gimnastika taldeen erakustaldia izan dira aste honetan zehar burutu diren ekimenak eta harrera ona izan zuten.

### 4-5 EUSKAL JAIA

#### Euskal Jai eguna eta Topa Eguna aurkeztu dira

Urriaren 17a, larunbata, Euskal Jai eguna izango da Lasarte-Orian, baina honekin batera Topa Eguna ere egingo dela jakitera eman du Titakun Kultur elkarteak. Herriko euskara elkarteak eta Euskaltzaleen Topaguneak egitarau bateratua antolatu dute egun borobila izateko. Honetan euskara eta jaiak uztartuko dira.



**Urriaren 12an,  
astelehena,  
ez da  
TXINTXARRIRIK  
argitaratuko.  
Herriko  
informazio  
guztia  
txintxarri.eus  
atarian**

MAiTE

ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian,  
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,  
gure prezioetan!

Prezio berriak fotodepilazioan  
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Josue  
Igeltseritza S.L.

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28  
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa



Neure kabuz



Jexux Artetxe

Ekintzailtza

Enprendoreei buruz ari naiz. Lehengo astean, enpresarien elkarteko presidentek hautsak harrotu zituen ekintzarako senik gabe ikusten zituelako oraingo gazteak. Etorkizuna dugula jokoan, gaineratu zuen. Erabili zituen hitzen gordintasuna aparte utzita, funtseko gaiari heltzea kostatu egiten zaigu. Esango nuke arazoa ez dela gazteena bakarrik, gizarte osoarena baizik. Gazte, heldu eta erretiroan gaudenona. Oro har, guztion erantzukizuna badena, tajuzko herrigintza garatu nahi badugu.

Baina, ekonomiaren arlora itzuli nahiko nuke. 2014ean, gure Elkarte Autonomoan ekintzailtzak izan duen indarraren azterketa orain egun gutxi aurkeztu dute. Bertako Unibertsitate guztiek elkarlanean egindako ikerketa dela ikusteak sinesgarritasun handia ematen dio lanari. Datuak 2013koak baino hobexegoak dira. Enpresen desagertzea gelditu egin omen da eta ekintzaile gehiago dagoela diote. Hala ere, inguruko batz besteko ekintza mailaren atzetik gaude. Gizarteak ekintzaileekiko duen iritziaz ere okerrera egin duela dio ikerlan honek.

Hartsuaga antropologoak hone-laxe dio: "goitik edo kanpotik inork ez baditu gure arazoak konponduko, gerok konpondu beharko ditugu". Gauzak gure esku daudela aho beteka aldarrikatzea oso ondo dago, baina gure bizibidearen berma bakarra lana sortzen duten ekintzak bultzatzea da. Ekimena duen herria bezala ezagunak izan gara mendeetan. Eta horrek lagundu digu XXI menderarte herri bezala irauten. Susta dezagun ekintzailtza gure artean, eta babes ditzagun gure ekintzaileak, etorkizunean gure buruaren jabeago izan nahi badugu behintzat.

Zorion agurrak



Manuel

Zorionak emazte eta semearen partez. Egun zoriontsua pasa dezazula eta askoz gehiago bete ditzazula



Eneritz

ZORIONAK "guapisi-ma". Zazpi muxu erraldoi amatxo, Haritza eta aitaxoren partetik!!!



Aiora

Zorionak Aiora, gure etxeko sorgintxo. 8 muxu zu bezain handi. Segi horrela prexiosa!!



Eneko

Zahartzea, esperientziak pixka bat jakintsuago bihurtu gaituela ospatzea da.



Garazi

Zorionak maitia zure 8. urtebetetzean. Gure oparirik hoberena zara. Milaka muxu zure familia guztiaren partez.



Añes

Zorionak Zabaletako artistari! Muxu eta opari asko zuretzat. Lea, ama, aita, amama, aittona eta Txanpan.



Ekain

Zorionak Ekaintxo, milaka muxu pottolo gure etxeko txikiarentzako. Amaiur, aitatxo eta amatxo.



Ariane

Zorionak printzesa zure lehen urtebetetzean! Ama, aita eta familiaren partetik muxu pottolo bat! Askok maite zaitugu.



Luana

Zorionak familia guztiaren partetik. Askok maite zaitugu printzesa!!



Xuhar

Zorionak pottoko!!! Iritsi da eguna...txokolatezko 4 muxu potolo



Nora

Zorionak guraso eta zure ahizparen partetik!! Milaka muxu!!



Ane

Zorionak printzesa txokomarrubizko 6 muxu handi etxeko partez!!!

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

• Garaje marra berria alokatzen da topo geltokiaren parean, 11m2 ditu. 687 271 288

Lan-eskaria

- Garbiketa edo zaintza lana asteburuetan, gau eta arratsaldeak. Berehala hasteko prest. 639 740 900
- Garbiketa edo zaintza lan egiteko prest interna zein externa moduan eta asteburuetan. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. 639 089 138
- Garbiketarako, umeak edo agureak zaintzeko prest nago. Edozein ordutegi (interna izan ezik). Azucena. 669 931 026
- Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, interna edo externa moduan. Esperientzia daukat. Claudia Rivera 600 334 021
- Neska gazte euskaldun bat haurrak zaintzeko prest eskaintzen da. 616 932 038 (Eneritz)
- Gizona eskaintzen da eskutitzak edo publizitatea banatzeko. 943 364 527

• Etxeko lanak egin eta pertsona adinduak edo haurrak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Interna, externa edo orduka. 676 188 411

Bestelakoak

- Irakaslea eskaintzen da klase partikularrak emateko Lehen Hezkuntza eta DBH-ko lehen zikloan. Maialen: 626 652 224
- Kantu modernoko irakasle baten bila nabil: nirekin harremanetan jartzeko idatzi email honetara: mikelgnieto@gmail.com
- Laguntza klaseak ematen dira Lehen Hezkuntza eta DBH. Talde txikiak, esperientzia handia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak...Harremanetarako zenbakiak, 943 376 888 / 646 645 445 (Maria)
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068
- California furgonetaren abantzia salgai. 686 245 146

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Eneko Aramburu Teijon, urriaren 3an.
- Mael Sanchez Ruiz, urriaren 1an.
- Hugo Crespo Labian, irailaren 30ean.
- Isaac Vili Martin, irailaren 30ean.
- Arhane Lizeaga Garcia, irailaren 27an.

Heriotzak

- Victoria Iriarte Iriarte, urriaren 06an, 69 urte zituela.
- Elias Fernandez Leyva, urriaren 3an, 74 urte zituela.
- Leonardo Fernandez Gonzalez, urriaren 1ean, 67 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 09**  
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
  - Larunbata, 10**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
  - Igandea, 11**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
  - Astelehena, 12**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
  - Asteartea, 13**  
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
  - Asteazkena, 14**  
Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 943 019521
  - Osteguna, 15**  
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Echeveste Elosegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak


- Erregistroa 943 371629
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal eskualtegia 943 361621
- Munteri AEK 943 372863

Larrialdi telefonoak

- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

txintxarri

**Erredakzioa:**  
Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**publizitatea@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Laso, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz



## NAGUSIEN OMENALDI ASTEA



Atzo aurten urrezko ezteiak egiten dituzten bikoteak omendu zituzten Biyak Bat elkartearen.



Biyak Bat, Nagusilan eta Xistrak abesbatzen ahotsak entzungai izan ziren astelehenean.

## Nagusiak sasoi betean

### Herritar ugarik parte hartu du ekintzetan

**Biyak Bat egoitzeko urteurrenarekin eta Urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteei omenaldia eginez amaitu ziren atzo Nagusien Omenaldi asteko ospakizunak. Harrera ona izan dute ekintza guztiek bai partehartzaile edo ikusle kopuruagatik.**

#### TXINTXARRI

**G**imnasia, dantza edo kantua. Herriko nagusiek energia soberan dutela erakutsi dute Nagusien Omenaldi asteko ekintzetan.

Astelehenean, Kontu Kantoiko lagunak ipuin kontalari saioa egin zuten. Hurbildu ziren lagunak gustora jarraitu zituzten Bea Egizabalen kontakizunak.

Elkarteko abesbatzak ere izan zuen bere lekua astelehenean. Nagusilan eta Galiziako etxeko Xistrak abesbatzekin batera emanal-

dia eskaini zuen Ama Brigitarren komentuan.

Amaieran guztiek bat egin eta 'Goizian argi hastian', 'Ixil-ixilik dago' edo 'Azken agurra' doinuak eskaini zituzten komentuan.

Kantuaren ostean, luntxa izan zen Biyak Baten egoitzan.

Asteartean euriagatik gimnastika, lerroko dantza eta areto dantzetako taldeen erakustaldia Biyak Bat egoitzan egin behar izan zen.

Partaideek sasoiaren daudela erakutsi zuten eta musikaren edo txilibitoaren erritmoari ederki jarraitu zioten.

Asteazkenean berriz, Gorka Aginagalde eta Maribel Salasen "Monolocos" ikuskinaz gozatu ahal izan zuten Manuel Lekuonara hurbildu zirenek.

#### Urrezko ezteiak

Atzo berriz, Biyak Bat elkartearen egoitzaren 37. urteurrena ospatu zuten eta honekin bat eginez, aurten 50 urte ezkontuta betetzen dituzten 27 bikoteri omenaldi txikia egin zieten.

Goizean, egoitzatik kalejira alaian atera ziren bikoteak Ama Brigitarren komentura. Mezaren ostean, luntxa dastatu ahal izan zuten.

Arratsaldean, aldiz, oroigarriak jaso zituzten Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia, Beatriz Juez Sozioekonomia sailako zinegotzia eta Biyak Bat elkarteko zuzendaritzako kideen eskutik.



Monologo zoroak eskaini zituzten Maribel Salas eta Gorka Aginagaldek.



Dantza eta gimnastika taldeek euriagatik egoitzan egin behar izan zuten erakustaldia.

## Muñoak sailkatzea "oso zail" ikusten du

**U**nai Muñoa herriko bertsolaria Elgoibarren aritu zen larunbatean kantuan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenetan. 407,5 puntu bildu zituen denera, laugarren postua eskuratuz. Puntuazio orokorren zain egon beharko da baina herritarrak dagoeneko, bere burua txapelketatik kanpo ikusten du.

Laugarren txapelketa izan da hau Unai Muñoarentzat: "Ez dut txapelketa asko prestatu, lehiaketarako ilusio falta ere banuen eta larunbateko saioaren sentsazioa izan zen ikasi gabeko azterketa batera joatearena bezalakoa".

Horretaz gain, arrapaladan kantatzen ariko balitz bezala sentitu zen bertsolaria "ber-



Muñoak laugarren txapelketa izan dela eta, ilusioa berdina ez dela aitortu du.

tsoak ni dominatzen ariko balitz bezala, azkarregi kantatu nuen, pentsatu gabe".

Saioaren sentsazio gaziagoa du "ez zait iruditzen desastre bat izan zenik, baina aldi berean, nire maila erakusteko gai ez nintzen izan, poto bat ere egin nuen..."

Unai Muñoak burua beste proiektu batzuetan duela aitortu du.

Batetik 'Ez gara Palestinaz ari' lanarekin herriz-herriz jarraitzen du eta urriaren 23an Hernanin izango dira adibidez bestetik, Euskadi Irratian proiektu berria martxan jarriko du aurki.

#### BIYAK BAT

##### Irteera Biasterira

Biyak Bat elkartekoek urriaren Biasteriko 'Hereditad de Ugarte' upeltegira egingo du hilabete honetan txangoa. Irteera urriaren 29an izango da eta 9:00etan aterako da autobusa Lasarte-Oriatik. Eguerdian upeltegiko bisita egingo da eta bazkal ostean, Biasteri herria ezagutzeko aukera izango dute. Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, 50 euro. Izena emate epea gaur irekiko da eta Biyak Bat egoitzeko bulegoan egin behar da inskripzioa, 10:30etik 12:30era.

#### EAJ

##### Zaballosen izendapen irregularra

EAJ-k salatu du Jesus Zaballosen Probintzia eta Udalen Espainiako Federazioaren Gobernu Batzordearen kide moduko izendapen "faltsua". "Nekez izan daiteke alkatea FEMP-eko gobernu-kidea Lasarte-Oria elkarteko bazkide ez denean. Lasarte-Oria Federación Española de Municipios y Provincias elkartearen bidez". FEMP elkarteko Gobernu Batzordeak baja hori onartu zuen 2014ko urtarrilaren 28an. "Federazioari galdetuta ea bazkide ez den udalerri bateko alkateak zuzendaritza kide izendatu daitekeen eta ezetz adierazi digute, beraz Zaballosen izendapena ez litzateke legezkoa".



# Euskal Jaia eta Topa Eguna eskutik

Urriaren 17ko Euskal Jaia Euskal Herriko euskaltzaleen topaleku bilakatuko da

Villa Mirentxun aurkeztu zuten asteartean Ttakunek, Topaguneak eta Udalak urriaren 17an herrian ospatuko den Euskal Jaia eta Topa Egunaren egitaraua. Ohi bezala Euskal Jaia antolatzen den herriko hainbat eragilek parte hartu dute ekintza desberdinekin egitarau oparoa prestatuz. Herritarrei gonbita luzatu zitzaizen egun horretan baserriar jantziarekin kalera ateratzeko.

## TXINTXARRI

Villa Mirentxun egin zen asteartean urriaren 17an herrian izango den Euskal Jaia aurkezpena. Aurtengoan berezia izango da izan ere, Euskaltzaleen Topagunearekin batera Topa Eguna ere ospatuko baita. Horrela, herriko jaiaren baitan, Euskal Herri osoko euskaltzaleek bere lekua izango du.

Sonia Perez Topaguneko ordezkariak esan bezala, Topa Eguna Azkoitia, Soralue eta Deriotik pasa ondoren, Ttakun elkartearekin elkarlanean Lasarte-Oria egingo da.

“Lasarte-Oria aukeratu dugu erreferentzialtasunagatik, batetik, Ttakunek mugimenduaren barruan duen lekuagatik, aitzindari izan zelako Topagunearen sorreran, baita herriak berak duen herrigintza dinamikagatik ere”.

“Topa Egunak euskaltzaleen aldarrak egin eta euskaraz bizitzaren alderdi onak agerian ipini nahi dituen jai izatea nahi dugu”. Espe-rienzien Trukegunea Villa

Mirentxun egingo da larunbatean 11:00etatik aurrera eta bertan elkarte ezberdinek 15 minutuko azalpenak emango dituzte aurrera daramatzaten proiektu jakinen inguruan.

## Elkarlanaren fruitu

Ttakunen izenean Naiara Mujikak Euskal Jaia egitaraua azaldu zuen. Hau urtero bezala, herriko eragile, babesle eta laguntzaileei esker gauzatu dela azpimarratu nahi izan zuen. Ttakun eta Topaguneari batera, AEK, Xumela, Kukuka, Erketz, Ostadar S.K.T, Jalgune, Ttiriki Ttarrak, Zabalera Auzolan, Oiantxe in deu! txaranga, Intza pilota eskola, Guraso taldea, Landaberri Guraso Elkarte eta Burunzpe Guraso Elkarte.

Urriaren 17an goizean goizetik hasita diana batekin alaituko dituzte musikariak Lasarte-Oriako kaleak. Jarraian, Trukegunearekin paralelo, Zumaburutik erdigunera abiatuko den kantu dantza jira txikia izango da 11:00etan.

Okendo plazara iritsita, ongi etorri ekitaldia ospatuko da. “Jai giroan kantuaz eta



Euskal Jaia egitarauaren baitan hainbat ekintza ere antolatu dira aurretik, hala nola, hitzaldi, antzerki eta mahai ingurua.

dantza gozatzeko aukera izango dugularik. Era berean, Joseba Ostolaza eta Jokin Eizmendi harri jasotzaileak erakustaldi bat egingo digute, Okerra harria plazara aterako dute berriro ere. Ekitaldi honi amaiera emateko plazan bildutako guztiekin topa kolektibo bat egingo dugu”.

14:30ean bazkari herrikoia izango da, herriko sukaldariak eginda. Honetan parte hartzeko, txartelak Jalgin eta Ttakunen salgai daude 8 eurotan.

Ondoren, haur eta gazte-txoentzako jolasen tartea izango da. Jarraian, Topa Egunaren ekitaldi nagusia ospatuko da 16:30ean. Bertan, Topaguneari hartuko du hitza,

Topa Egunaren zergatia azaltzeaz gain, hurrengo urtean antolatzailea izango den Atarrabiko kultur elkarteari Ttakunek lekukoa pasatuko dio.

Egunarekin aurrera eginaz, “Ane eta Piratak” ikuskizuna izango da 17:00etan. Jai giroa ez gelditzeko, Oiantxe in deu! txarangarekin kaleak alaituz, Eztengiroren erromeriari emango zaio hasiera.

Era berean, egitarauari amaiera emateko, herriko taberna desberdinetan pintxo potea egiteko aukera izango da: Abend, Arkupe, Buene-txea, Sancho, Trumoi, Yolanda taberna, Txanpa, Artizar, Gure Etxea, Ilargi, Iñaki Taberna, Jalgi, Insausti eta Avenida.

Eguraldi txarra eginda, Okendoko ekintzak Loidi Barrengo frontoira pasatuko direla argitu du Mujikak. Amaitzeko, herritar guztiei jantzi tradizionalak soinean, plazara gerturatzeko gonbita luzatu zien.

## Udalaren laguntza

Jon Antxordoki euskara zinegotziak ere hitza hartu eta Udalaren babesa adierazi zien Ttakun eta Topaguneari. Ekintzak antolatzeke diru laguntza ere eskura jarriko dituztela aipatu zuen.

Honek ere bi jai hauek gurean bat egitea ohorea dela esan zuen.

## 'Koka-Kola eta Barea' astelehenean

Ramon Agirre eta Inazio Tolosa aktoreak Xumelako kideen entseguan izan ziren 'Koka-Kola eta Barea' antzezlanaren aurkezpen astelehenean. Bertan Xumelakoek eurekin abestera ere animatu ziren izan ere, antzezlanaren ardatza Ez Dok Amairu musika mugimenduaren sorrera baita.

Ray eta Niken esanetan han zeuden, hasierako Ez Dok Amairu hartan, proposamenak egiten, aholkuak ematen, abestiak edo letrak ontzin, eta zergatik ez, afaria prestatzen.

Xabier Leteri bizarra uzteko esan zitoten (hor hasi omen zen bere ibilbide arrakastatsua), Benitori aho-itsa lakartzeko... Gerora mitiko bihurtu den abesti bat euren asmatua dela aldarrikatzen dute, baina isilpean gordeko dute plajiatzailearen izena. Momentuz. Munduan



Xumelako kideekin izan ziren aktoreak kantuan.

bueltara ibili ondoren euren meritua aitortua izan dadin besterik ez dute nahi eta Euskal Kantagintzaren Benetako Historia kontatzen zuten kantatzen datoz. Ez hori bakarrik. Ez Dok Amairu berpiztera ere bai. Lortuko ote dute? Liburu bat ere idatzi dute: “Urrutiko Intxaurrek”. Euren memoriak. Best seller hau salgai izango

da zuzeneko emanaldietan eta Euskal Herriko liburutegi onenetan.

## Sarrerak salgai

Astelehenean, urriak 12 Abend kafe antzokian izango da hauekin gozatzeko parada, 19:00etan. Txartelak 5 eurotan eskuratu daitezke Jalgi eta Abenden bertan.

## Jakoba Errekondorekin solasaldi arrakastatsua



Jakoba Errekondok 'Bizi Baratza' liburuaren aurkezpena egin zuen asteazkenean Manuel Lekuonan. Usurbilgo agronomo eta paisajistak baratzen inguruko liburuaren atera du Argiarekin eta honetan asko dira azaltzen dituen gaiak.

Euskal Herriko baratza, tradizioz, anitza izan dela azpimarratu zuen eta egun uniformaziorako joera dagoenez kultura hori galtzen ari dela esan zuen. Horretaz gain, liburuaren idazte-

ko garaian, euskara zeinen aberatsa den konturatu da eskualde, herri bakoitzean izen ezberdinak topatu dituztelarik landare zein baratzeke lanentzat.

Galderen txandan bertaritutakoek gai asko planteatu zituzkien eta besteak beste, Ilargiaren faseen inguruan mintzatu zitzaizen Errekondo.

Hitzaldia Euskal Jaia egitarauaren lehenengo ekintza izan zen eta harrera beroa izan zuen.



# Euskararen etorkizuna bermatu nahian

Topalab taldeak idatzitako 'Berrikasi eta berrikusi' dokumentua aztergai mahai inguruan

**Topa Egunari aurre hartuz, mahai ingurua antolatu da urriaren 14an, 18:30ean Villa Mirentxun. Honetan, euskaltzetasunari buruz mintzatuko dira, 'Berrikasi eta berrikusi' dokumentua oinarri hartuta. Jasone Mendizabal eta Iñaki Martínez de Luna Topalabeko kideak eta Pablo Suberbiola Soziolinguistika Klusterreko kidea izango dira mahai inguruan. Gidari Iñaki Arruti Lasarte-Oriako Udaleko euskara teknikaria izango da.**

**E**uskaltzaleon Topaguneko Topalab taldeak hausnarketa sakon baten ostean, 'Berrikasi eta berrikusi' dokumentua kaleratu zuen maiatzean.

Honetan, euskaltzetasunak azken hamarkadetan izan duen

garapenaren irakurketa kritiko egiten du taldeak, "ondorioak atera, irakaspenak identifikatu eta estrategiak berrikusteko balioko duena".

Honela, 1950 urtetik 2013 urtera arteko errepeaso bat egiten

da eta fase bakoitzeko bereizle edo oztopoak nabarmentzen dira, hala nola, auzolana, alfabetizazioa euskararen politizazioa edo globalizazioa eta beste hizkuntzen eragina.

Hauek kontuan hartuta normalizazioaren bidean, euskararen garapen sozialak beharrezkoak dituen aurre begirako zazpi zutabea ondorioztatzen dira hauetako batzuk dira, Hiztun komunitate emantzipatua; Epe luzerako plangintza eta Hizkuntza politika edo Legebabesa, baliabideak eta erreferentziak.

## Topalab

Topalab soziolinguistikaren arloan zeresana duten pertsonak eta euskaltzaleen mugimenduko kide oso hurbileko pertsonak osatzen dute, hala nola, Kike Amonarriz soziolinguista, Julen Arexolaleiba soziolinguista, Mikel Irizar Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari ohia, Elena Laka Euskaltzaleen Topaguneko egungo lehendakaria, Jasone Mendizabal Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaria, Jon Sarasua HUHEZIKo irakaslea eta Ibon Usarralde soziologoa eta Euskaltzaindiaren Sustapen batzor-

dekidea. Taldea 2013. urtean hasi zen lanean Topagunearen ekimenez eta Topagunearen dauden kezkek eta mugimendu modura jorra daitezkeen lanildoak gogoetekin uztartzen saiatu da. Ekintzarekin batera, pentsamendua eta jakintza berreskuratzea du buruan taldeak eta hortik jaio da 'Berrikasi eta berrikusi' testua.

Honen bitartez eztabaida bultzatu nahi dute. Helburua, euskaltzaleek etorkizuneko erronkak adostu eta komunitate modura garatzeko estrategiak batera martxan jartzea.

**Pablo Suberbiola Soziolinguistika Klusterreko zuzendari teknikoa**

## "Euskara praktikatzeko aukera mugatua da"

*Pablo Suberbiola lasarteoriatarra izango da mahai inguruko gonbidatua. Soziolinguistika Klusterrean ari da lanean eta Lasarte-Oriako Ttakun euskara elkartearen sorreran parte hartu zuen. Bere esperientzian oinarrituta dokumentuko zenbait punturi buruz galdetu diogu.*

**T**takuneko sorreran izan zinen, zer behar zeuzkaten orduan Lasarte-Oriako euskaltzaleek? Asko zegoen egiteko. Zein esparrutan eman ziren lehenengo urratsak?

Ttakun elkarte 1991an sortu zen, duela ia 25 urte. Egiteko... asko zegoen orduan, eta asko dago gaur egun ere; baina zenbait gauza aldatu dira. Pare bat aldaketa nabarmentzekotan, bat izango zen gaur egun orduan baino askoz euskaldun gehiago dagoela herrian. Hau da, euskaldun moduan, gaurko Lasarte-Orian kalean ezezagun bati euskaraz egiten badiozu, askoz aukera gehiago daukazu hark zu ulertzeko. Eta nabarmenduko nukeen beste aldaketa da euskaltzaleen edo euskaldunen arteko giroa, kaleko giroa. Gaur hogeitaz gertu euskaldun bati esaten badiozu beharrezkoa dela lan bat egitea "euskaldunen arteko ezinikusiak gainditzeko" edo "joera ezberdineko euskaldunak elkartzeko" ziurrenik poker aurpegia

jarriko dizu, eta zertaz ari zaren ere ez du jakingo. Elkartearen lehen urteetan, aldiz, giroa beste bat zen, eta joera politiko ezberdineko euskaldun guztiak onartuak izango ziren gune edo talde bat sortzea oso garrantzitsua zen; hala ikusten eta bizitzen genuen behintzat, horretan ibili ginenok. Eta hori izan zen hain juxtu Ttakun elkartearen lehen urteetako funtzioetako bat: joera ezberdineko euskaldunak elkarrekin aritzeko moduko eremu bat sortzea. Maila teorikoan "euskaldungoaren konpaktazioa" edo esan izan zaion hori, alegia.

**Auzolanean sortua, borondatezko lana egiten zen orduan, ezta?**

Galdera entzunda, ulertzen dut horretan ere izan dela aldaketarik ordutik hona... Ez dakit gaur egungo dinamika zehazki nolakoa den, baina Ttakun elkartearen lehen urteetako jarduna eta zentzua ezin dira ulertu auzolana eta borondatezko lana pre-

sente izan gabe. Langile batzuk ere aritu ginen, gure lanaren zati bat kobratzen genuenak, baina kontratatuta geunden langileen egiteko bat zen, hain zuzen, bolondres aritzen zen jendearen lantaldeak antolatzea, ekintzarako jendea elkartzea... azken finean, existitzen ez zen harremanen sare bat eraikitzen joatea, ekintzen bitartez. Eta nekez egin daiteke hori jendearen borondatezko lanik eta inplikaziorik gabe.

**Egun Soziolinguistika Klusterrean lanean zaude. Giro ez profesional batetik espezializatu batera egin zenuen salto.**

Klusterreko lana teknikoagoa da, bai; hizkuntzaren eta gizaratearen arteko lotura duten gaietan aritzen gara, batez ere ikerketa eta dibulgazio lanetan. Gure proiektu gehienetan, dena den, ikerketa aplikatua esaten zaiona egiten dugu, hau da, teoria eta praktika lotzen saiatzen gara, eta arazo konkretuei erantzun asmo duten ikerketak egiten ditugu. Alde horretatik, Ttakuneko urteetako esperientzia erreferentzia baliagarria da niretzat gaurko lanean ere.

**Lan ezberdinak egin dituzu Klusterrean, horietako bat Aldahitz dugu. Zertan datza?**

Normalean, behin pertsona batekin edo lagun talde batekin harremanerako hizkuntza bat finkatuta duzunean, luzerako izaten da. Kasu batzuetan halere, baldintza batzuk batera gertatzen direnean, harremanerako finkatuta dagoen hizkuntza hori aldatu egin daiteke. Hori da Aldahitz ikerketaren bitartez aztertzen duguna: nolakoak diren prozesu horiek, zein baldintzatan ematen diren, etabar. Eta hori modu bat da halako aldaketak

egin nahi dituen talde edo pertsonari bidea errazteko.

**Horren harira, gero eta euskal hitzun gehiago dago, baina euskararen erabileran ez da antzematen, zeintzuk dira arrazoiak?**

Arrazoi ugari daude horren atzean, baina sinplifikatzearen, horietako bat aipatuko dut, txiki-na ez dena: egia da gero eta euskaldun gehiago garela, baina hori bezain egia da belaunaldi berrietako euskaldun gehienek, eskola aparte utzita, ikasitako euskara hori egunero euren harremanetan praktikatzeko aukera mugatuak dituztela.

**Soziolinguistika Klusterreko beste eragileekin batera lan egiten du. Zure esperientziatik, elkarlan hori beharrezkoa da euskararen normalkuntzaren bidean? Non eragin behar da gehien?**

Euskararen "normalkuntza" aipatzen denean, horren atzean irudikatzen den prozesuak gizarte-aldaketa bat eskatzen du. Eta dimentsio zabaleko gizarte-aldaketa bat gertatzeko, beha-

rrezkoa da agente ezberdinak inplikatzeko. Zerbaitetan "eragiteko" modu bat hori da, hain zuzen, erakunde ezberdinak inplikaturik egotea.

**Euskaltzaleen Topaguna osatzen duten euskara elkarteek esperientziak partekatzeko Topa Eguna ospatzen dute. Zer iruditzen zaizu ekimena? Pauso bat al da?**

Pauso bat da, bai. Euskara elkarte batean lan egin dugunok badakigu korrontearen kontra egiten den lana dela hori, eta hala ari zarenean normalean ongi etortzen zaizu beste esperientzien berri izatea, beste herrietan nola ari diren jakitea, haiekin elkartzea eta abar. Eta ez da elkartzea bakarrik; jaia ere bada! Eta jairik gabe..., nola ba?!

**Zer iruditzen zaizu Lasarte-Orian halako ekimena egitea?**

Duela egun batzuk irakurtzen nion Jasone Mendizabali TXINTXARRIN Lasarte-Orian egindakoa beste herri askorentzat erreferente izan dela. Ohorea da hori guretzat, eta kasu honetan, festarako aitzakia ere bai!

## ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua Baserri pateia

### BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451





## LABURRAK.-

## Intza KEk 13-22 hartu zuen mendean Aurrera-Saiaz taldea Gipuzkoako klubaren txapelketan

Bigarren garaipena poltsikoratu zuten asteburuan Intza KEko senior mailako pilotariek, Bidania-Goiatzeko Aurrera-Saiaz taldea 13-22 menderatu ostean. Gipuzkoako Klubaren arteko txapelketan ari dira buru-belarri, eta hiru jardunalditako bitan garaipenak erdietsi dituzte. Maila mantentzea da haien helburu nagusia; erritmo honetan jarraituz gero gora begiratzeko aukera ere izango dute herriko pilotariek.

Joan den astean Oiartzungo Oiarpe taldea hartu zuten mendean Michelingo pilotalekuan, 22-13. Asteburuan ez dute partidurik jokatu, zubia dela-eta astebeteko geldialdia egingo baitute.

## Buruntzaldea IKTko Master ataleko kideek ekin diote 2015-2016 denboraldiari

20 urtetik gorako igerilariei, igerilari ohiei, triatletei edo igeriketa-zerikusia duen edozein kirolari zuzendutako atala da Master deritzona. Joan den astelehenean ekin zioten sasoi berria prestatzeari; helburu nagusia prestatzea da, eta hori behar bezala garatzeko beharrezkoak diren atalak lantzen dira.

Astelehen, asteazken eta ostiraletan burutuko dituzte lan-saioak Master atalekoak, 7:15etik 8:15era goizetan edo bestela 16:15etik 17:15era arratsaldeetan. Kiroldegiko igerilekura joan eta Borja Apeztegiagatik galdetu beharko dute interesa dutenek ordu horietan edo bestela 18:00etatik 21:00etara bitartean.

## LOKEko judokak lehian asteburuan

Iraila hasieratik daramate LOKEko judoek denboraldi berria prestatzen; iritsi zaie ordua landutakoa tatami gainean erakusteko, konpetitzeko. Ander Garrido eta Yeray Mendibe kadeteak Vigora (Galizia) joango dira asteburu honetan, Espainiako Kopan parte hartzera. Bestalde, senior mailako Asier Sagastik, Beñat Elizalde, Esteban Martinezek eta Josu Olmosek Iruenen dute hitzordua, bertan jokatu baita Super Kopa delakoa. Lehengo urteko bide beretik jarraitu eta tatami gainean emaitza onak erdiesten saiatuko dira LOKEko judokak asteburu honetatik hasita.



## ATLETISMOA.-

## Kros herrikoien XX. urteurrena

DYako laguntzaileek eramango dute bat zenbakia dortsalean

Urriaren 25ean jokatu da XX. Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoia. Ostadar SKT antolatzaileak bi berrikuntza nagusi iragarri ditu. Batetik, DYako laguntzaileek eramango dute bat zenbakidun dortsala aurten eta, bestetik, Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian eman beharko da izena.



Irudian, DYako laguntzaileak eta Ostadar SKTko hainbat kide aurkezpenean.

## TXINTXARRI

Nagusien krosa urriaren 25eko goizeko 10:30ean hasiko da, Frutas Ruiz denda paretik. Gurgildun aukietako lasterkariak bi minutu lehenago hasiko dira. Korrikalari denei agurra dantzatuko zaie 10 kilometro eta 500 metroko ibilbidea burutzen hasi aurretik.

Izena eman behar izaten da krosetan aritu aurretik. Zeregin horri lotutakoa da aurtengo berrikuntzetako bat: Ostadarren lokalean egin ordez, kultur etxeko kafetegian eman beharko da izena aurten. "Jende-pilaketak saihestuko ditugu leku aldaketarekin", adierazi du Ostadarrek.

Urriaren 13an hasiko da izena emateko epea. Aste-

gunetan 17:00-20:00ak bitartean eta larunbatean 11:00-13:00ak artean. Elkarteko bazkideek 8 euro ordaindu beharko dituzte eta 12 ez direnek. Lasterketa egunean ere ahalko da izena eman 20 euroren truke.

## Bat zenbakia

Orain artean parte-hartzaileei eman izan die bat zenbakidun dortsala Ostadar SKT, baina aurtengoan "salbuespena" egin dute, DYako laguntzaileek eramango baitute aurten: "20 urte daramatzate guri krosetan laguntzen. Urte borobila da; denbora horretan guztian emandako laguntza eskertzeko modu egokia iruditzen zaigu aitortza publiko hau, eta etorkizunean elkarlanean jarraitzeko gonbita".

## Materiala, bezperan

Lasterketan aritzeko beharrezkoa den materialaren bila "krosaren bezperan" joateko gomendatu du Ostadar SKT: "Era horretan lasaiago ibiliko dira korrikalariak lasterketaren egunean, eta igandeko ilarak saihestuko ditugu guk".

Michelingo frontoira joan beharko dute korrikalariak 11:00etatik 14:00etara edota 16:00etatik 19:30era bezperan. 9:00etatik 10:00etara ere joan daitezke kros egunean.

Bestalde, nagusien krosa amaitzarekin batera hasiko da Korrika Festaren XV. edizioa. Gaztetxoek kultur etxeko kafetegian hartu beharko dute dortsala 5 euroren truke. Aurtengo edizioan "parte hartu nahi duten guztiak" egingo dute lasterka urriaren 25ean, Ostadarren aburuz.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 10

Urnietako zelaia, 10:00etan

Urnietako KE 'B' - Ostadar SKT  
Kadeteen 1go maila,  
laugarren jardunaldia.

Lazkao Arizti Handi zelaia, 10:00etan

Lazkao KE - Ostadar SKT  
Ohorezko infantil,  
bigarren jardunaldia.

Michelingo kirol-gunea, 11:45ean

Ostadar SKT - Orioko FT  
Ohorezko Jubenil maila,  
laugarren jardunaldia.

Michelingo kirol-gunea, 13:30ean

Ostadar SKT - Vasconia CD  
Infantil txikiak,  
bigarren jardunaldia.

Michelingo kirol-gunea, 15:30ean

Ostadar SKT - Iluari FK  
1go Erregionala,  
laugarren jardunaldia

Michelingo kirol-gunea, 17:30ean

Ostadar SKT - Ordizia KE  
Ohorezko Erregionala,  
laugarren jardunaldia

Igandea 11

Irun, Gal zelaia, 11:15ean

Real Union Club SAD - Ostadar SKT  
Kadeteen Ohorezko maila,  
laugarren jardunaldia.

Hernani, Zubipe zelaia, 12:00etan

Hernani CD - Ostadar SKT  
Emakumezkoen Lurralde maila,  
hirugarren jardunaldia.

Donostia, Rezola zelaia, 12:00etan

Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT  
Jubenil 1go maila,  
laugarren jardunaldia.

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 9

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean  
Txindoki - Trumoi

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Txoko - Izkiña

Villabonako Olaederra kiroldegia, 20:30ean

Egintza - Cecilia Ostadar  
Gipuzkoako 2. maila,  
bigarren jardunaldia.

Larunbata 10

9:15etako partidua ez dute jokatu  
Ilargik eta Indauxek.

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Reformas Lagunak - Viña del Mar

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

El Punto - Also

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

Kattagorri-Insauti - TSST

Legorretako Harripila frontoia, 17:00etan

Legorreta Bilkoin- Ostadar Antonio  
Nazional Ligako 3. maila,  
bigarren jardunaldia.

Andoaingo Allurralde kiroldegia, 19:15ean

Euskalduna SD - ISU Leihok  
Gipuzkoako 1go maila,  
bigarren jardunaldia.

## SASKIBALOA

Ostirala 9

Kiroldegian, 20:30ean

Ostadar SKT - Añorga  
Errendimenduko juniorrak,  
laugarren jardunaldia.

Larunbata 10

Azpeitiako kiroldegian, 10:45ean

Iragaz ISB - Ostadar SKT  
Errendimenduko kadeteak,  
laugarren jardunaldia.

Kiroldegian, 18:00etan

Ostadar SKT - Bera Bera Monpas  
Partizipazioko juniorrak,  
bigarren jardunaldia.

Igandea 11

Kiroldegian, 9:30ean

Ostadar SKT - Take Uzturre  
Partizipazioko kadeteak,  
bigarren jardunaldia.

Kiroldegian, 11:00etan

Ostadar SKT - Ganbara  
Senior probintzialeko 3. maila,  
bigarren jardunaldia.

## ATLETISMOA

Igandea 11

Donostia, 10:00etan

Herriak ordezkariak zabala izango du igandean Donostian, guztira 75 korrikalari hartuko baitute parte 3 hondartzetako kros ezagunean.

## ERRUGBIA

Larunbata 10

Arratiako zelaia, 16:00etan

Arratiko Zekorrak RT - Babyauto  
Zarautz Beltzak  
Senior mailako Euskal Ligako 2. maila,  
bigarren jardunaldia.





## — Agenda —

Astelehena, Abend kafe-antzokia, 19:00etan



### Koka-kola eta barea

Ramon Agirre eta Inazio Tolosak "Koka-kola eta barea" ikuskizuna eskainiko dute. Antzezlanean Ez Dok Amairu euskal kantagintzaren historian mugarri izan den mugimendua- ren gaineko istorioa kontatzen dute Agirre eta Tolosak. Sarrerak 5 eurotan salgai daude aurrez Abend eta Jalgi kafe antzokian. Egunean bertan izango da aukera hauek eskuratzeko.

"Manolo de Badajoz".  
**14:30etan**, Bazkari herrikoia.  
**17:00etan**, Haur Jolasak.  
**18:00etan**, Txokolatea txurroekin haurrentzat.  
**19:30etan**, Semblante Rociero korua- ren kantaldia.  
**20:00etan**, Dantzaldi herrikoia.

**GOLF PLAZA**

**Astelehena**

**13:00etan**, Gitanillas del Alba eta Duende Flamenco dantzari taldeen emanaldiak.

**14:30etan**, Babarrun jana Semblante Andaluzen.

**19:00etan**, Zambra taldearen emanaldia.

**20:30etan**, Lehiaketetako txapeldunei trofeoak banatzea.

**21:00etan**, Aste Kulturalaren bukarea Salbe Rozieroa abestuko da.

## Lasarte-Oria

### Zinea

**MANUEL LEKUONA**

**Ostirala, 22:00etan**

"Amy Winehouse" abeslariaren inguruko filma jatorrizko bertsoian ikusi ahal izango da Okendo zinema taldeak antolatutako zine forumean. Abeslariaren bizia eta bere gertuko hitzak erakusten ditu. Sarrera 5,50 euro.

**MANUEL LEKUONA**

**Larunbata, 20:00etan**

"Mision Imposible: Nacion" filma ikusi ahal izango da helduen zinema atalean. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera 5,50 euro.

**MANUEL LEKUONA**

**Igandea, 17:00etan**

Haurrentzako zinema saioan "Del Reves" filma ikusi ahal izango da. Sarrera 3,80 euro.

**MANUEL LEKUONA**

**Igandea, 19:30etan**

"Mision Imposible: Nacion" filma ikusi ahal izango da helduen zinema atalean. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera 5,50 euro.

### Semblante Aste Kulturala

**GOLF PLAZA**

**Ostirala**

**20:00etan**, "Amigos del Sur"-en emanaldia.

**21:30etan**, Afaria andaluziar menuarekin eta dantzaldi herrikoia.

**GOLF PLAZA**

**Larunbata**

**12:00etan**, Bote txapelketa.

**12:30etan**, Pintxo-potea, barra zerbitzua.

**17:00etan**, Sevillana dantzak.

**19:00etan**, Zambra taldearen emanaldia.

**20:00etan**, Genaro "El ruiseñor de la Mancha" flamenko kantariaren emanaldia, gitarran lagun izango du "Manolo de Badajoz".

**21:00etan**, Dantzaldi herrikoia.

**GOLF PLAZA**

**Igandea**

**13:00etan**, Gitanillas del Alba eta Duende Flamenco dantzari taldeen emanaldiak.

**13:30etan**, Genaro "El ruiseñor de la Mancha" flamenko kantariaren emanaldia, gitarran lagun izango du

## Ibilbideen eguna

**HERRIAN ZEHA**

**Igandea, 9:00tik 14:00ra**

Buruntzaldeako Ibilbideen 8.eguna izango da. Herri bakoitzean kontrol une bat egongo da (Usurbilen bi), argibideak emateko eta mokaduak eta edatekoak banatzeko.

## Ipuin Kontalaria

**MANUEL LEKUONA**

**Asteartea, 18:00etan**

Pello Añorgarekin ipuin kontaketa izango da haur liburutegian. Honekin emango zaio hasiera ipuin kontalari saioei. 4 eta 5 urte arteko haurrei zuzendua. Sarrera irekia da baina umeak bakarrik sartuko dira saiora.

## — Herritarren txokoa —

### 65ean jaiotako afaria

1965ean jaiotako afaria egitea pentsatu dugu. Hau azaroaren 28an izango litzateke gure lehenengo 50 urteak ospatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko Olga 687 845 623 edo Idoia 653 712 373.

### Alboka Abesbatza

Alboka Abesbatzak 2015-2016 ikas- turte berria hasi du eta 15-55 urte bitarteko herritarrak animatu nahi ditu parte hartzera.

Astelehen eta ostegun guztietan 20:00etatik 21:30era entsaiatzen du abesbatzak Arantzazuko Amaren Eliza azpiko lokalean, Zumaburun.

Informazio gehiago jasotzeko idatzi [info@albokaabesbatza.com](mailto:info@albokaabesbatza.com)-era.

### Moscu-St. Petersburgo-ra irteera

Noaoa Bidaiak hurrengo urterako iada prest du lehenbiziko irteera. Moscu-St. Petersburgora astebete zerbitzu guztiak barne. Apirilak 30

ean irteera eta maiatzak 7an buelta. Lasarte-Oriatik abiatu Loiuako airepor- tura eta bertan hegazkinez.

Informazio gehiago 943 373 613, [info@noaoabidaia.com](mailto:info@noaoabidaia.com), edota ofi- zinara hurbilduz Hipodromo etorbi- dea 10.

### Saskibaloizaleentzat hitzordua asteartetan

Saskibaloia atsegin duten herritarrek badute aukera kirol horretan aritzeko talde federaturen batean egon gabe. Herritar talde bat astearte guztietan biltzen da Michelingo kirol-gunean, lagunartean saskibalo partidak jokatze- ko, 20:00etatik 22:00etara.

Interesa dutenek 676 02 64 24 tele- fonora deitu edo [elperryjmm@yahoo.es](mailto:elperryjmm@yahoo.es) helbidera idatzi beharko dute.

## — Hemeroteka —

### Duela 1139 ale



1999.urteko urriaren 16an eraitsi zuen Udalak Torre Etxea. 1915. urteaz geroztik zutik zegoen etxea ordu batzuetan lurreratu zutela jasotzen zuen TXINTXARRI-K.

Azken bizilagunak egun batzuk lehenago aldatu ziren bizileku berrira. Urriaren 14an udaleko hirigintza batzordeak botatze lanak zein enpresak egingo zituen erabaki eta 16an gauzatu zen.

Torre Etxearen lekuan kotxeentzako biralekua, egun Tajamar, egingo zutela iragartzen zuen Udalak. Hori bai hurrengo urteko aurrekontuetan jasoko zen diru partida hori, hau da, 2000. urteko aurreikuspenetan.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)



# Ibilbideen eguna, eskualdeko bideak ezagutuz

Lasarte-Oria eta Andoain artean bide berria markatu dute Buruntza menditik

**Igandean Buruntzaldeko Ibilbideen eguna antolatu dute eskualdeko Udalek. Lasarte-Oriatik Usurbil, Andoain edo Urnietara doazen bideak ezagutzera eman eta herritarrek kirola egitea ditu helburu ekimenak.**

**B**uruntzaldeko Udalek aurten ere eskualdeko Ibilbideen eguna antolatu dute. Lasarte-Oriako Txus Alonso kirol zinegotzia, Iñaki Ugarte Usurbilgo kirol zinegotzia, Ana Karrere Andoaingo alkatea eta Urnietako David Rosco Kirol zinegotzia izan ziren aurkezpenean.

Honetan, Buruntzaldeko Ibilbideen eguna igandean, urriaren 11n, goizeko 9:00etatik 14:00etara aurrera eramango dela jakitera eman zuten.

Aurkezpenean azpimarratu zuten legez, Buruntzaldeko Ibilbideak izeneko proiektuari esker, lehiatzeko ez den eta edozein publiko motarentzat egokia den kirola egiteko eta Buruntzaldea eskualdeko bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dago.

Udal ordezkariak eta Ostadar SKT elkarteko Mendi sailak elkarteko mendizale eta bazkideei ekimenean parte hartzeko deialdi berezia egiten die, "gure inguruko bideak ezagutzeko aukera ederra baita".

## Profilak eta distantziak

Eskualdean bidezidor eta bide ezberdinak daude aukeran,

bost ibilbide zehazki, landako paisaiatik barrena paseoz gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatuz eta baserri, basiliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz.

Herrietan ibilbide-zati bakoitzaren inguruko traza-tuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude. Bideetan berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zuinak.

Seinale horiek guztiak udalerrri bakoitzaren identifikazio-koloreak aintzat hartuz ipinita daude: Lasarte-Oria urre zaharra; Urnietara berdea; Usurbil laranja eta Andoain urdina. Era honetara, seinale bat bidean ikusten dugunean zein ibilbideetan gauden jakingo dugu.

Ibilbideak Andoain-Urnieta, Andoain Lasarte-Oria, Andoain-Usurbil, Lasarte-Oria-Urnieta eta Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga dira.

## Berrikuntza

Aurten gainera, berrikuntza bat dago, Andoain-Lasarte-



Buruntzaldeko Ibilbideen egunaren aurkezpena.

L-O UDALA

Oria bidean lotura berri bat markatu da. Hau San Rokeko ermitatik, Buruntzako gailurrera eta Lasarte-Oriaraino doa.

Ostadar SKT Mendi saileko kideek jakitera eman duteenez, "gure gomendioa jarraikiz egin dute eta era honetara, ibilbidea erakargarriagoa da".

## Kontrolak eta anoak

Ibilbideen egunean parte hartu nahi dutenek, bere herriko kontrol gunetik hasi behar dute ibilbidea.

Argibideak emateko eta mokaduak eta edatekoak banatzeko herri bakoitzean kontrol gunek bat egongo da, Usurbilen izan ezik. Bertan bi postu izango dira, bata Santueneako auzoan, Zorrotzeko

zubiaren parean eta bestea Aginagan Mapil inguruan.

Andoainen eta Urnietan Udaletxe azpian egongo dira kontrolak eta Lasarte-Orian, berriz, San Pedro eliza ondoko plazan.

Hauetan txartel bat eman-go zaio parte hartzaile bakoitzari, abiatzen den lekuko zigiluarekin eta zigilua jarriko zaio amaitzean ere.

## Oparia

Gainera, Buruntzaldeko ibilbideetatik barrena ibiltzeagatik partehartzaileek opariak izango dituzte.

Partaide batek bi ibilbide eginez gero, egunaren oroigarria den gerriko poltsa jasoko du opari. Salbuespenak Andoain-Usurbil eta Andoain-Lasarte-Oria ibilbideak dira, bietako

edozein norabidean eginez gero gerriko poltsa lortuko baita.

## Autobus zerbitzua

Honetaz gain, partaideek doako autobus zerbitzua izango dute etxera itzultzeko. Autobusak Aginaga, Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain eta Urnietara ibilbidea egingo du 12:00etatik aurrera. Azken autobusa 14:00etan aterako da Aginagatik eta 14:40ean iritsiko da Urnietara.

Geltokiak Aginagan Ezpaldiko gasolindegian, Usurbilen S. Inazio biribilgunean, Andoainen Goiko plazaren atzealdean, Urnietan Kiosko geltokian eta Lasarte-Orian Dorretzeko biribilgunean dira.

Zerbitzua erabiltzeko, derri-gor, hasieran jasotako txartela ziztatuta aurkeztu beharko da.

## Merkataritza biziberritzen

**Z**enbait dendek atek itxi zituztenetik hutsik egon dira erakusleihoak baina biziberritu egin dira orain. Aterpea merkatarien elkarteak eta Udalaren Sozioekonomia batzordeak ekimen bat jarri dute martxan; aktiboak diren beste zenbait komertzio ari dira produktuak iragartzen bertan. Aurreko legegaldian udal gobernuak abiatutako 'Lasarte-Oria Biziberritzen' egitasmoarekin du harremana.

Zortzi denda ari dira parte hartzen: Otaegi Altzariak zenaren bost erakusleihoetan Ormazabal loradenda, ISU leihoak, Alba moda, Alcar leihoak eta Olmi mertzeriak jarri dituzte euren produktuak. Txuri Urdin taberna zenean Santana Informatikaren eskaintzak ikus daitezke, Noaia bidaia agentziarenak Anaiak jantzi-dendarena zen lokalean eta Abreu bazarrarenak Ola kaleko lokal batean.

"Nahiago genuke horre-



Irudian, ekimenean parte hartzen ari diren dendariak eta Udal ordezkariak.

lako egitasmorik sustatu ez beharko bagenu; komertzioen %100 martxan dagoela esan nahiko luke horrek. Horrela ez denez, gisa honetako ekimenek Lasarte-Oriako merkataritza biziberritu egingo dutela uste dugu", adierazi zuen Ater-

peako lehendakaria den Ramon Ormazabalek.

Jesus Zaballosek hitz egin zuen Udalaren izenean, eta adierazi zuen herriko komertzioak "itxura are biziagoa" hartuko duela, eta gisa horretako ekimen gehiago burutuko dituztela etorkizunean.

## Kiroldegi berria buruan



Itxaso Aldundiko Kirol diputatua, Zaballos alkatea eta Alonso kirol zinegotziarekin.

**G**ipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Departamentuko diputatu Denis Itxaso etorri zen atzo Lasarte-Oriara. Jesus Zaballos alkatearekin bildu eta kiroldegia bisitatu zuten, honen egoera ikusi eta kirol zaleen eskaerak ezagutzeko.

Jesus Zaballos alkateak azaldu zuenez, "Udal gobernuak kiroldegiaren egoera ikusita, erabaki bat hartu nahi du eta Foru Aldundiaren laguntzarekin, proiektu berri batean lanean hasi nahi du.

Horretarako 2016 urteko aurrekontuetan kiroldegi berri hori disenatzeko partida bat aurreikusten dugu".

Denis Itxasok azpimarratu zuenez, "nahiz eta Udalak modu egokienean mantendu, posible da kiroldegi hau bere bizitzaren amaierara iritsi izana. Muga batzuk ditu eta beharra dago. Horregatik, elkarlanean proiektua disenatzean laguntza teknikoa emateaz gain, ekonomikoki hori gauzatzeko dauden aukerak aztertuko ditugu".